



ADOS AHOLKU BATZORDEAREN INFORMAZIO-ZIRKULARRA

3. zba.

2021ko AZAROA

ADOS Eusko Jaurlaritzak sortutako Aholku Batzorde bat da, euskal erakundeek eta Euskadiko Komunitate islamikoen arteko lankidetzak sustatzeko sortua. 2018ko apirilaren 14an eratu zen. Ordutik, urtean gutxienez bost aldiz bildu da. Batzorde horretan euskal erakunde guztiek eta komunitate islamikoetako kideek parte hartzen dute. Bileretan bizikidetzak sustatzeko lan egiten da, eta helburua da Euskadiko komunitate islamikoen arazoei irtenbideak bilatzea.

HILERRI MUSULMANAK 2021EKO URRIA

Gipuzkoako Udalekin lanak aurrera jarraitzen du

Joan den urriaren 8an, ADOS Batzordeko ordezkariak batek hirugarren bileran egin zuen Gipuzkoako zenbait Udalekin, erritu musulmanaren arabera, hilerrietan ehorzketak egiteko lurzatiak edukitzeko premiarik konponbidea aurkitzeko.

Oraingoan, sei Udal prest agertu dira beren udalerrietako hilerrietan alternatibak bilatzeko. Datozen asteetan udalerri horietako bakoitzean bilerak egingo dira, kasu bakoitzean dauden aukera zehatzak ikuspuntu teknikoetatik aztertzeko.

Epe ertainerako helburua da eskualde bakoitzean hilerri bat egotea, erritu musulmanean ehorzketako lurzatiak dituenak. Aurreko zirkularretan jakinarazi zen bezala, Bizkaian 16 hilobitarako erreserba dago. Bestalde, Gasteizen dagoeneko badago akordio bat helburu bereko lurzati bat gaitzeko.

PANDEMIARI BURUZKO INFORMAZIOAK

Meskiten eta kultu-zentroen edukiera

Joan den urriaren 6an, Eusko Jaurlaritzak Osasun Larrialdi Adierazpenari amaiera eman zion. Erabaki horrek indarrik gabe utzi zituen indarrean zeuden murrizketak gehienak. Horrela, baimendutako gehieneko edukiera %100ean berrezarri zen lokal eta instalazio guztietarako. Ondorioz, meskitek eta kultu-zentro guztiek ere %100eko edukiera izan dezake-

te. Nolanahi ere, meskiten barruan derrigorrezkoa da maskara erabiltzea. Funtsezkoa da, halaber, espazio itxiak etengabe aireztatzea eta pertsonen arteko distantzia gordetzea.

COVID-19a ez da joan

Txertoak eta prebentzio-neurriak pandemiak atzera egiten lagundu dute, baina COVID-19a ez da joan. Gure artean jarraitzen du. Funtsezkoa da oinarriko prebentzio-neurriak mantentzea. Bi dira funtsezkoak: maskara eta txertoa; txertoa eta maskara. Maskara erabilera publikoko gune itxietan erabili behar da, hala nola saltokietan, ostalaritzan, meskitetan edo kultur etxeetan. Kanpoaldean ere erabili behar da, pertsonen arteko distantzia gorde ezin denean edo jende-pilaketak gertatzen direnean. Bestalde, norberaren eta taldearen osasuna zaintzeko modu bat da txertaketa. Elkartasunaren erakusgarri da. Eusko Jaurlaritzak oraindik txertorik jaso ez dutenei lehenbailehen txertoa jartzera animatzen die.

JAIEGUN MUSULMANAK

Zein da egoera Europan, Estatuan eta Euskadin?

Batzordeak gai horri buruzko kontsulta bat jaso zuen, joan den irailaren 9ko bileran aztertu zena. Jaieguna musulmanek nazioartean eta estatuan duten tratamendua azaldu zen. Ondorio nagusiak honako hauek izan ziren:

Ez Europan, ez Estatuan, ez Euskadin, ez dago erreferentziarako legeriarik jaieguna musulmanak nazioko, eskualdeko edo tokiko jaiegunetan gehitu ahal izateko, eta Estatuko, Autonomia Erkidegoko edo udalerriko egutegi ofizialean sartu ahal izateko.

Hala ere, posible da langilearen eta enpresa edo administrazio kontratatzailearen arteko akordioak lortzea, esanahi bereziko egun musulmanak beste lanegunak edo jaiegunengatik ordezkatzeko, eta, horrela, egun horiek ospatu ahal izateko.

Ceutan eta Melillan tokiko jaiegun bezala hartzen dira

Bilera berean jakinarazi zen, halaber, gai horrek tratamendu desberdina duela Ceuta eta Melilla hiri autonomoetan, errealitate geografiko, kultural eta sozioerlijioso berezia dela eta.

Ceutan eta Melillan, garrantzi bereziko jaiegun musulmana, hala nola Arkumearen edo Sakrifizioaren festa, tokiko jaia da, eta Estatuko herrietako beste edozein jaiegun bezala gozatzen da.

Joan den irailaren 24an, Ceutako Batzarrean, 2022az geroztik, hiri autonomoko lan-egutegian bigarren os-

pakizun musulman bat sartzea erabaki zen: Ramadaren Amaierako Pazkoa, Eid Al Fitr. Duela 12 urte, 2009an, toki-korporazioak erabaki zuen ez zela laneguna Eid Al Kebir, Espainian 1492tik aitortutako lehenengo jaiegun ez-kristaua.

ADOS BATZORDEAREN HURRENGO PROIEKTUAK

ADOS Batzordeak dituen proiektuen artean, euskal gizartean kultura eta erlijio desberdinetako pertsonen arteko integrazio eta bizikidetzarako jardunbide ego-kiak eta arrakastaren isla diren pertsonen testigantzak bilduko dituen dokumental-film bat sustatzeko proposamena dago. Ekimen honen helburuetako bat Euskadiko errealitate musulmana gertuago eta ezagunago bihurtzea da.



ADOS Aholku Batzordea
Comisión Asesora ADOS
اللجنة الاستشارية أَدوس

945 018 036
688 670 199
adosbatzordea@euskadi.eus
Navarra, 2 / 01007 Vitoria-Gasteiz

Euskadi, auzolana, bien común

